

PUTA GORDA

PUTA: (izena) Fabore sexualak diru-truk egiten dituen emakumea.

GORDA: (izenondoa) Gaztelaniatik, gantz edo haragi ugari duen emakumea.

PUTA GORDA: Higuina, goragalea, nazka ematen duen emakume mespretxagarri eta doilorra.

Hori zara zu, *puta gorda* bat. Ez zara puta bat, ez zaude lodi, baina horrela deitzen dizute. Eta horretan pentsatu nahi ez baduzu ere, urteetan gogorarazi dizute zenbait ikaskidek. Batzuetan, horrelaxe, gordin-gordinik: *puta gorda*. Beste batzuetan begirada batekin. Ninietan irakur ditzakezu hitzok: *puta gorda*.

Ez duzu ondo gogoratzen noiz hasi ziren horrekin, agian betidanik izan da horrela eta horrexegatik normalizatu duzu jarri dizuten ezizena. Zure lagun batzuei baserriaren izenez deitzen zieten, eta baserririk ez dutenei, haien izenez edo abizenez. Zuk ez daukazu ez baserririk ezta izenik ere. Zuri, *puta gorda*.

Hasieran *gorda* zen bakarrik, puta gabe. Batek esan eta besteek barre egiten zuten parkean. *Zu! Gorda! Pasatu baloia!* Eta zuk, ingurura begiratu ere egin gabe, pasatu egiten zenien, bazenekielako zuri zebiltzala, ez beste inori, zu baitzinen han zegoen *gorda* bakarra. Pentsatzen zenuen adeitsu agertuz gero, utzi egingo ziotela horrela deitzeari. Baina oker zeunden. *Ez egin jaramonik, tontakeriak baino ez dira* esaten zizun irakasleak kexaka joaten zinenean, eta eskuarekin egiten zizun keinu bat, eltxoak uxatzen balego bezala. *Ez egin jaramonik* esaten zizuten gurasoek, *zu ez zaude lodi*. Baina bazenekienbaitz. Hainbestetan esaten bazizuten, zerbaitegatik izango zen. Zergatik, bestela?

Zurekin zebiltzan neskek ez zizuten horrela deitzen. Baina ez zuten ezertxo ere esaten, ez zintuzten besteen aurrean defendatzen. Eta zu ez zinen defenda zintzaten eskatzera ausartzen. Ez zenuen ahul agertu nahi. Ez entzunarena egiten zenuen. Garrantzia kentzen saiatzen zinen. Baina nola diren kontuak, tantaz tanta sortzen da putzua eta denborarekin itotzen hasi zinen.

Kostatu zaizu, baina onartu duzu, halako batean. *Puta gorda* bat zara. Higuina, nazka ematen duzu, eta oka egiteko gogoia. Institututik irten eta etxera heltzeko nahia baino ez duzu. Hozkailua ireki eta bezperako sagar tartatik zati eder bat hartu eta hura irensteko irrika. Ez da gose-gosea, badakizu, baina kontsolatu egiten zaitu, nolabait esateko.

Begira. Begira dituzu. Terrazetako behatokitatik zuri so. Goitik behera begira, ezker-eskuin begira. Maleziatzko irribarreak nabaritzen dituzu. Bai, bai, zuri begira daude. Eta esaten ari dira orain ere loditu egin zarela, pena dela, hain neska polita izanik. Ze lodi, ze pena.

Pausoa bizkortzen duzu, espaloi-bete zoaz, badakizu, ez da beste inor kabitzen kale bazterreko lauza grisetan, norbait aurrez aurre badatorkizu, xera egingo diozu eta espaloia hari utziko, ordea. Baina ez. Ez da inor zugana hurbilduko, lasai, espaloia zeurea da, inork ez du zurekin gurutzatu nahi iraintzeko ez bada. Institututik etxerainoko harlauza guztiak zenbatuta dauzkazu, berrogeita zazpi eta erdi, banan-banan, binan-binan, kalkulu mentala praktikatzen duzu, hori da burumakur joatearen abantaila bat. Ez duzu egundo dirurik aurkitu, ordea. Orain inork ez du dirurik galtzen kalean.

Etxera albaite arinen heltzea da zure eguneroko helburua. Babeslekuan gordetzea, leize sakon ilunean, piztien helmenetik kanpo, paleolitikoan nola. Ez duzu inorekin hitz egin nahi. Zergatik eta zertarako.

Dutxa bat hartzea komeni zaizu goizean ere dutxatu zaren arren. Ilea koipetsu nabaritzen duzu eta galtzarbea usaindu duzunean tipula zaharraren hatsa hartu diozu. Kiratsa darizu, neska, normala inork zure ondoan egon nahi ez izatea.

Horretan pentsatzeak antsietatea sortzen dizu eta komunera joan aurretik sukaldetik igarotzea pentsatzen duzu, ea zerbait jangarria dagoen. Ez da gosea, berez — behin eta berriro esaten dizut—, baina ez dizut beste ezertan pentsatzen uzten nire aginduak bete artean. Sagar tartarik ez da geratzen, norik jan ote du. Haserreari kontra egiteko txokolatzeko gaila batzuk jateak on egingo dizula esaten dizut. Sobreko patata frijituak. Gazta apur bat. Ogia. Beste txokolatzeko gaila bat. *Coca-Cola* lata bat. Kakahueteak.

Eta hor duzu gozamina ahoan, asetasuna urdailean, berehalako plazer iragankorra.

Eta horren guztiaren gainetik, damua. *Putu gorda* baten damua, oraingoan ere zeure tranpan erori baitzara. Nola da posible! Nolatan zara hain burugabea? Zer egin diozu zeure buruari? Errudun sentitzen zara orain, ezta? Jakina! Eguneroko kontua! Ongi da, ongi da. Zoaz komunera. Ea bihar ahoa ixtea lortzen duzun, ergel halakoa.

Komunean sartzearekin batera, belaunikatu zara komunontziaren aurrean, arestian irentsita guztia botatzeko. Esku batekin ile mataza eutsi duzu eta beste eskuko erdiko atzamarra eta erakuslea sartu dituzu gingileraino, eta ez da beharrezkoa izan gehiegi

laztantzea, hantxe irten dira urdaileratu dituzun txerrikeria guztiak. Guztiak errua izan ezik. Begiak malkotan, muki eta adur dariola, arnasestuka zutitu zara zure konfesatoki partikularretik eta ponpari tiratu diozu.

Dutxako txorrota ireki duzu eta arropak eranzten hasi zarenean bizkarra eman diozu oraindik lurrundu ez den ispiluari, zure gorputzak lotsa ematen dizulako, ez duzulako aurrean ikusten duzun masa higuigarri hori ezagutzen eta ez zarelako ezezagunen aurrean biluzten. Are gutxiago zure zeru begien aurrean.

Urak goitik behera egiten du lan berezko garbitze asmo preziatuarekin, eta buru-azal koipetsuentzako xanpu bereziarekin biziki igurtziz doaz bainuontziko isurbidetik gantzak, hildako ile kizkurrak eta aurpegian dirauten malko eta mukiak.

Zurea ez beste inorena den esponja horian bota duzu gorputzeko banillazko gel txorrotada ederra, inoiz ez baita nahikoa gela, inoiz ez baita nahikoa banilla usain ederra, eta zure haragi gizen eta erorietan marruskatu duzu, azkarki, koadernoan arkatzez egindako akatsa borragomarekin ezabatu nahian bezalaxe.

Goizean bezala, bizar-orriarekin moztu dituzu arrasean besapeak, iztondoak, izterrak, bernak, behatz-potoloen gainaldeak, eta irudikatu duzu zein ederra izango litzatekeen gehiegizko haragia ere moztu ahal izatea, harakinak txahal-maskala xerratzen duen leuntasunarekin. Eta horretan zabiltzala, eskuineko izterraren barnealdean gogorki zanpatu duzu gailua zure haragia eten den arte.

Hari gorri bat irristatu da orduan belauneraino eta ur apartsuan galdu da. Nahiago zenuke odol hori zu zeu bazina, estolda-zuloetan betiko desagertu, txin pun.

Erre egiten du zauriak, baina hala eta guztiz ere hatz lodi eta erakuslearekin hertsatzen duzu zauri leuna, pikorta gorri bat zornez hustu nahian nola.

Erresumina plazerrarekin uztartzen denean dator klimaxa.

Toalla handiarekin biltzen duzu gorputza, toalla txikiago batekin zure adats kizkur ederra, eta momentu batez ia-ia ahaztu duzu *puta gorda* bat zarela, zure mina izterraren barrualdeko zaurian zentratzen delako orain. Min libragarri katarsikoa.

Oin puntetan baina arin batean irten zara komunetik zure logelan ixteko. Ia begiratu ere egin gabe sikatu duzu zure larru garbitu berria, oraino lohia, eta estali dituzu

arrasto horizontal gorrixkak, gaurkoa eta aurreko egunetakoak, ebakiondo zimurtsuak batzuk, fresko eta berri-samarrak beste batzuk, pijama luze batekin.

Uda ate-joka ari da, eta zuk gorroto duzun sasoia den arren, inguruko beste guztiak nabaritzen dituzu asaldatuta, urduri, haien gorputz mehe eta lirainak hondartzan erakusteko irrikan. Zure ikaskide batzuk hasiak dira galtza-motzak eta minigonak janzen, tirantedun kamisetekin eta sabela bistan uzten duten topekin haien azal leun eta haragi estu desiratuak bistaratzen.

Zuk ez duzu horrelakorik egingo, ordea. Ezta pentsatu ere. Argi utzi duzu ez duzula hondartza gogoko eta horrexegatik ez zarela joaten. Ez duzula berorik sumatzen, eguzki-izpietatik babesten duzula zure azal zuri sentibera, beduinoak nola, arropa luzeeta nasaiekin. Inoiz ez duzu aitortuko zure lotsariak estaltzeko egiten duzula egiten ez duzun guztia.

Gehiegi meriendatu eta afaltzeko gogorik ez duzula adierazi diezu gurasoei eta biharamuneko azterketarako ikasi beharraren aitzakiarekin, musu bana eman eta zure leizean giltzapetu zara. Etxekoek ez dakite Instagrameko kontu bat ireki zenuela duela hilabete batzuk, oraindik gutxieneko adina izan ez arren, eta kontu handiz ibili behar duzu gurasoek ikusten dituzun bideoen soinua entzun ez dezaten. Horregatik entzungailuak bluetootharekin Olentzerori.

Ezin konta ahala dira zu bezalako *puta gordentzat* Interneten sortu diren bideo lagungarri guztiak. Soberan gramo bat bera ere ez duten neska gazte, argal eta panpoxak, perfektuki makillatuak, haiek bezalakoa izateko egin behar duzun guztia zurekin, *puta gorda* batekin, partekatzen dutenak. Kirola, garrantzitsua: hormaren kontra egiten den pilatesa, yoga, ariketa aerobikoak —etxean, ezkutuan, inori ikuspegia hondatu gabe egin ditzakezunak—. Elikadura: teak, anana-trukutz likidotuak, chia haziak, olo-malutak, jatorduak ordezkatzeko irabiatuak —marrubizkoak, banillazkoak, txokolatzekoak— hestegarbigarriak, aldizkako barauak eta hamaika trikimailu gehiago. Esaldi motibagarriak: “Ez amestu zure bizitza, bizi zure ametsa”. “Zerbait egin nahi duenak beti aurkitzen du egiteko era bat; nahi ez duenak, ordea, aitzakia bat”. “Bizi zure bizitza. Azken finean, inor ez da zure ordezkari hilko”.

Bestalde, badaude zu bezalako *puta gorda* batzuen bideoak ere, nazka ikaragarria ematen dutenak. Iruzkina interesgarri batzuk ere egiten dituzte noizbehinka, edo hala iruditzen zaizu, bederen. Zure gorputza zeurea dela, maitatu egin behar duzula, ederra

zarela, ez egiteko jaramonik gorputz estereotipatua duten jendearengandik datozen gomendio faltsuei eta kritikei... horrelako gauzak. Jarraitzaileen komentario iraingarriek betetzen dituzte beheko lerroak, eta zuk zuretzat hartzen dituzu, zuzenean zuri balebiltza bezala. Badirudi norbait zuri begira dagoela logelako behatoki sekretu batetik, eta defendatzeko, horri nolabait kontra egiteko, “*Puta gorda*” idatzi duzu hasiera batean jatorra eta maitekorra zirudien emakume horren bideoaren pean eta geziari eman diozu, klik, hor doa mezua, hark ere jakin dezan zer den, zuk zer zaren dakizun bezala.

Sentimendu hori, berriro. Urduritasun moduko bat sabelean. Gosea ez den arren, tripa-zorrien zalaparta nabaritu dezakezu entzungailuen gainetik ere, eta gurasoak lotan daudela ziurtatu ondoren, sukaldera bidean aurkitu duzu zeure burua, afariko soberakinen bat topatu eta di-da batean irensteko asmotan. Hozkailuko atea ireki duzu iluntasunean, eta begirada bizkor baten ondoren, aitak egindako haragi pastela antzeman duzu beirazko ontzi batean aluminiozko paperarekin estalia. Berotu ere egin gabe irentsi duzu —muturraontzian sartuta eta arrapaladan— zerri batek bezala, agudo, bizkor, inork harrapatu ez zaitzan, eta ontzia ongi miazkatu ondoren, harraskan utzi duzu, zirkinik ere egin gabe. Beirazko ontzia eta gelditzen zitzaizun duintasun apurra, harraskan.

Ez zen gosea, esan dizut. Arestian izandako jokabide koldarrak sorrarazitako antsietatea izan da. Eta hori zuzentze aldera, komuneko aitorlekura egin duzu ihes, konketako ur txorrota ireki eta belauniko paratuz, barru-barruko kraka kanporatzera. Ez daitezela gurasoak esnatu. Arren.

Aurpegia garbitu eta mantapean bildu zara negarrez, lo gelditu zaren arte. Bakea.

Eguneko tarterik zailena izaten da goiza, zer jantzi aukeratu behar duzunean, armairuan zintzilik dagoen arropa guztiaren artean egoki gelditzen zaizunik aurkitzen ez duzunean, arropa errepikakor eta aspergarri eta zahar horri su emateko gogoia pizten zaizunean. Bart gauean ikusi dituzun Instagrameko neska horiek duten gorputza eta estiloa izatea nahiko zenuke, baina jakina, haiek jainkosak dira eta zu *puta gorda* bat, eta bakoitzari berea dagokio. Ikustea besterik ez dago zenbat jarraitzaile dituen hark eta zenbat zuk. Faborez. Konparatzea ere.

Dutxa ostean, kuleroetan *salvaslipa* itsasten duzun bitartean, gogoratu duzu badirela lau hilabete gutxienez hilekorik ez duzula, ezta zantzurik ere, baina ez diozu inori kontatu nahi, medikuarengana joatera derrigortuko baitzintuzkete eta buf, *a ze liada*.

Horregatik esan diozu amari orain ez duzula konpresarik edo tanpoirik erabiltzen, silikonazko kopa baizik, ingurugiroaren mesedetan eta hori guztia. *Put a gorda* gezurtia.

Berrogeita zazpi lauza eta erdi. Gosaldu gabe zoaz institutura, sabela erruz aseberetik. Begiradak, begirada arrotzak eta hotzak zure gainean. Barreak, hiena maltzur ezagunak inguruan, *put a gorda* oihu isilak. ikusezin izateko ametsa. “Ez amestu zure bizitza, bizi zure ametsa”. Nola lortzen da ikusezin izatea? Zer egin behar da ikusezin izateko?

Bazara ikusezina, neurri batean, badakizu. Inork ez baitzaitu gizaki arrazional bat bezala ikusten, *put a gorda*, alfer, zikin, ustel, zeri nazkagarri bat bezala baizik. Bizitzez ere merezi ez duen gantz masa. Hori zara zu. Horrenbestez, inork ez zaitu maite, inork ez zaitu begi-bistan nahi.

Infernuko berrogeita zazpi lauza eta erdi.

Ikusezina izan nahi duzu.

Ba ez bilatu aitzakia bat, bilatu ezazu ikusezin izateko modua.

Adeitasunez,

Zeure burua.

